



HAURREN ESKUBIDEAK. 8-10 URTEKOAK

Centro Cultural Calasanz



Cuba (Guabanacoa)



Lagundutako pertsonak: 780



Proiektuan lan egiten duten pertsonak: 50



Gizarte-errealitatearen aurkezpena:

Guanabacoa Habanako herri periferikoa da eta 100.000 biztanle baino gehiago ditu. Bere eremua oso zabala da eta horrelako zentrorik ez duten beste udalerrri batzuekin mugakide da. Biztanleek maila ekonomiko ertain-baxua dute, sinkretismo erlijiosoak markatutako auzo-nortasun batean.

Oso herri zaharra da, eraikuntza arazo larriak ditu eta gizarte eta ekonomia mailan atzeratuta gelditu da. Gainera, aisialdirako hiri-espazioen defizita nabarmena da. Kalea, beraz, haurren jolaserako leku nagusi bihurtzen da. Familia gehieneko egoera ekonomiko zailak tentsio-, disfuntzionaltasun- eta balio moralik gabeko jokabideak bultzatzen ditu maiz. Egoera horrek eragin zuzena du haur eta gazteen prestakuntza- eta hezkuntza-prozesuan.

Kubako biztanle guztientzako eskola-hezkuntza doakoa den arren, prekaritate ekonomikoak nabarmen okertu du herrialdearen eskoletako hezkuntza-kalitatea. (Irakasleen eta baliabide materialen faltarengatik gehienbat)



Egiten den lanaren deskribapen erraza:

Haurrak, gazteak eta helduak hezteko (batez ere egoera ahulenean eta gizarte-desabantailan daudenak), urteetan zehar inplementatu diren proiektu eta programen bidez. Proiektu eta programa hauek, inguruko hezkuntza-beharrei erantzuten saiatzen dira. Gaur egun, honako proiektu hauek daude martxan:

- 1- Haurtzaindegia.
- 2- Ingelesa ikasteko ikastaroak.
- 3- Musika tailerra.
- 4- Pintura tailerra.
- 5- Lehen eta Bigarren Hezkuntzako eskola-erreparak.
- 6- Calasanz Kideak taldea.
- 7- Esplai (udako jarduerak).
- 8- Calasanz Kideak-eko Monitoreentzako udako eskola (aisialdian).

Beste proiektu batzuk garatzeko espazioak ere eskaintzen dira, hala nola Alkoholiko Anonimoak eta "Granjita Feliz" proiekturako, Down Sindromea duten pertsonak biltzen dituenak.



Azken urteotako lorpenak/ Lanean jarraitzearen garrantzia:

- » Calasanz Guanabacoa Kultur Zentroa eliz, hezkuntza eta kultura erreferentziako lekua da. Guanabacoako espazio hau komunitateko publikoari zabaltzen zaio, Haur eta Gazteak Calasanzek esan zuen bezala, "En piedad y letras" heziz.
- » 570 ikasle inguru pasatzen dira urtero gure ikastetxeko hezkuntza proiektu desberdinetatik, non kultura eta balioei buruzko prestakuntza jasotzen duten. Harrera egiteko, entzuteko, biltzeko eta elkartzeko espazioak dira, eta jolasaren eta hausnarketaren bidez ere ikasten dute, hezkuntza, kultura eta sormen maila lortzeaz gain, espiritualki aberasteko.



Etorkizuneko asmoak:

- Gaur egungo hezkuntza- eta kultura-proiektuak indartzen jarraitzea, aukera hori ez duten Guanabakoako Erkidego osoari eta inguruko udalerriei mesede egingo dieten tailer berrien aukerak zabalduz.
- Gaur egun, eraikuntza-mugek eta gela batzuen narriadurak ez digute espazio berriak izateko aukera ematen eta beraz, gure lehentasunetako bat instalazio hauek konpondu eta erreskatatzea da.

